

GAZTERREN EGITASMOA

Kulturartekotasuna eta euskara sustatzeko
saioak

PROPOSAMENA

2020 urtea



Zabalbide 26, behea
48006 BILBO
Tlf.:94 432 0445
www.urtxintxaeskola.eus
urtxintxa@urtxintxaeskola.eus

Nori zuzendua:
Busturialdeako EISEa



0. AURKIBIDEA

0. Aurkibidea.....	2
1. Urtxintxa Eskolaren aurkezpena.....	3
2. Heziketa ikuspegia.....	6
3. Gazterren egitasmoaren proposamena.....	8
4. Helburuak.....	8
5. Metodologia.....	10
6. Programazio proposamena.....	15
7. Giza baliabideak.....	15
8. Baliabide materialak.....	16
9. Denboralizazioa.....	16
10. Ebaluazioa.....	17
11. Aurrekontua.....	19

1. URTXINTXA ESKOLAREN AURKEZPENA

Sorrera

Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Astialdi eta Suspertze Soziokulturaleko Eskola, bere beharrei egokitutako hezkuntza biderik aurkitzen ez zuten astialdiko eta kultura arloko talde batzuei hezkuntza eta jarraikortasuna emateko asmoz sortu zen 1986. urtean.

Helburua

Elkartearen helburu nagusia balioetan oinarritutako astialdi hezitzailea bultzatzea da, jendarteren eraldaketa bermatzeko. Horretarako, gure jarduera nagusia pertsonak alor honetan trebatzea da. Jendartetik abiatu eta jendartera iristea.

Zer jorratzen dugu?

Eskolaren ardatz nagusiak hiru dira; euskararen hizkuntz normalizazioa, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta kulturartekotasuna. Nahiz eta badiren beste balio eta gai batzuk presente ditugunak eguneroko jardunean, hala nola, ingurumena, heziketa premia bereziak, partaidetza...

Aisiaren eta astiaren antzaldatzean sinisten dugu eta baita astialdi hezitzailean ere, gauzak horrela, balioetan oinarritutako egitasmoak burutzen ditugu eta helburu eraldatzailea dugu presente. Egitasmo hauetako batzuk honako hauek dira: trebakuntza saioak, materialen sorkuntza, aholkularitza zerbitzua...

Nola jorratzen dugu?

Kalitatezko profesionalak (jendartean aktiboki parte-hartzen dutenak), hezkuntza pertsonalizatua, programa berritzaileak, baliabide material egokiak eta eguneratuak, gaurkoturik dagoen metodologia eta kudeaketa eraginkorra eskaintzen dugu. Horretarako, metodologia parte-hartzailea, aktiboa, praktikoa, ikertzailea eta iraunkorra da erabiltzen duguna.

Eragin eremua eta jasotzaileak

Gure eragin eremua Euskal Herria da eta jasotzaileei dagokienez, adin tarte guztietako pertsonak izaten ditugu gurean. Horrez gain, aniztasunean oinarritzen da gure jasotzaileen profila; kultura, sexu, gaitasun, hizkuntza...desberdinak.

Guk antzemandako beharrei erantzuteko sortutako egitasmoez gain, elkarte, udal, instituzio eta erakunde anitzentzat programak kudeatzen ditugu betiere, egun Urtxintxa Eskolan jorratzen ditugun balioetan oinarrituta.

Urtxintxa Eskolak bere ibilbidea hasi zuenetik 25 urte igaro dira. Aldi honetan zehar 30.000 pertsona inguruk hartu du parte gure ikastaro eta egitasmoetan.

Hezkuntza proiektua

Gure hezkuntza proiektuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- ▶ **Parte-hartzailea:** Eskola jendearen parte-hartzeari esker eraikitzen da eta era berean, Eskolaren ekite nagusia jendartean partaidetza sustatzea da.
- ▶ **Elkartasunean oinarritua:** Jendarte justu, demokratiko eta anitz bat bermatuko duen elkartegintza lortzearen aldeko interes bat aurkezten duen pertsoneri irekia dagoena.
- ▶ **Inklusiboa:** Pertsona guztiak hartzen dituena, beraien baldintza fisiko, intelektual, sozial, emozional, linguistiko edo beste batzuei erreparatu gabe eta hizkuntza, etnia eta kultura gutxituetakoak edota beste eremu baztertuetako pertsonak barne.
- ▶ **Integrala:** Garapen prozesua bere osotasunean bultzatzen duena, eskolaz kanpoko eremua ere barneratuz.
- ▶ **Behatzailea:** Inguruan eta norbere barnean gertatzen dena gogotsu aztertzeke jarrera duena dauden beharrez, indar-guneez, aukerez eta gabeziez jabetuz.
- ▶ **Kritikoa:** Behatutakoa zalantzan jartzeko joera duena, bere pentsaera propioa garatuz.
- ▶ **Eragilea:** Prozesu baten ondorioz eraikitako pentsamendua jendartean zabaltzeko eta elkarbanatzeko jarrera duena.
- ▶ **Dinamikoa:** Aktiboa eta ekiteko prest dagoena.
- ▶ **Sortzailea:** Egoera ezberdinetan irudimena eta dinamikotasunez, era berritzaile batez, aukera ezberdinak eraikitzen dituena.
- ▶ **Euskalduna:** Euskal Herriak dituen berezko nortasun eta ezaugarri historiko, sozial, kultural eta politikoak transmititzen dituena eta euskararen normalizazioaren bidean lan egiten duena.
- ▶ **Hezkidetzaila:** jendartean gertatzen den sexuaren araberako bereizketari aurre eginez, pertsona guztiak aukera eta eskubide berdinetan hezten dituena, jarrera ez sexista bati eutsiz.

Argitalpenak

- **Balioetan hezteko koadernoak** bildumaren lehen alea: ***Aisialdian euskaraz.***

Balioetan hezteko koadernoen bidez, hezitzaileoi hausnarketarako edukiak, metodologiak, aholkuak, kasu praktikoak eta baliabideak eskaini nahi zaizkie balio zehatzak egunerokotasunean lantzeko aukera emanez. Kasu honetan, koaderno honen bidez, hezitzaileek, beraien lanean euskara sustatzeko estrategiak, gomendioak eta baliabideak eskuratuko dituzte.

- **Balioetan hezteko koadernoak** bildumaren bosgarren alea: ***Heldu berriak euskaraz murgilduz***

Balioetan hezteko koadernoen bidez, hezitzaileoi hausnarketarako edukiak, metodologiak, aholkuak, kasu praktikoak eta baliabideak eskaini nahi zaizkie balio zehatzak egunerokotasunean lantzeko aukera emanez. Kasu honetan, koaderno honen bidez, heldu berriekin lan egiten duten hezitzaileei, euskara ezagutzeko, ikasteko eta erabiltzeko jolas eta dinamika praktikoak eskaini nahi zaizkie, modu ludikoan eta euskaraz gozatuz, lagun berriak gure hizkuntzan murgil daitezten.

- **KATRAMILA. Goizetik gauerako abesti-jolasak.**

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak argitaratutako “**Katramila. Goizetik gauerako abesti-jolasak**” izenburupean doan liburu + disko honek, 0-6 urte bitarteko haurrek eguneroko errutinak euskaraz egiteko 29 abesti-jolas biltzen ditu. Goizeko 8:00etan hasi eta gaueko 22:00k arte, ordu erdiro errutina bat egiteko abesti-jolas bat aurki dezakegu, bere pentagramarekin eta bere azalpen pedagogikoarekin. Hortaz, haurrek eta hezitzaileek, esnatzen direnerako, maitasuna adierazteko, hortzak garbitzeko, jatera doazenerako, bainua hartzeko, euskaraz egitera animatzeko, lotara doazenerako,...baliabideak aurkituko dituzte. Bilduma hau, hainbat balore kontuan izanda sortu da, parekidetasuna, bizikidetzeta eta kulturartekotasuna, besteak beste.

2. HEZIKETA IKUSPEGIA

AISIALDI HEZITZAILEAREN IKUSPEGIA BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLAN

Hezkuntza munduan gaur egun instituzio pedagogiko garrantzitsuena eskola dela uste da, baina gero eta argiago daukagu ez dela funtzio hezitzailea duen bakarra, eskolaz kanpoko ekintzak edo aisialdiko ekintzak gero eta garrantzia handiagoa hartzen doaz gure jendartean.

Hezkuntzaren munduan hiru eremu banatzen dira gaur egun: hezkuntza formala, ez-formala eta informala.

- *Hezkuntza informala* nahi gabekoa eta plangintzarik gabekoa da; adibidez, lagunen artean ematen dena.
- *Hezkuntza formala* eskolan ematen da. Planifikatua, nahitakoa eta arautua da eta Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarainoko tartean derrigorrezkoa da.
- *Hezkuntza ez-formala* derrigorrezko eskolaz kanpo ematen den hezkuntza da. Nahitakoa eta planifikatua da, intentzioduna, baina hezkuntza formalaren eremutik kanpo kokatzen da. Adibidez aisialdiko ekintzetan eskaintzen den hezkuntza ez-formala izango litzateke; ondo pasatzearekin batera, helburu desberdinak lantzen baitira.

Gaur eguneko jendartean argi daukagu eskolak ez dituela betetzen haurrek dituzten garapen behar guztiak. Izan ere haur eta gazteen kasuan beraien bizitzan eskolak betetzen duen tarte ez da hain esanguratsua. Ikusi taula:

AISIA= ASTIALDIA + HAUTU ASKEA + GOZAMENA + GARAPENA

Lehen astialdia lanari kendutako denbora kontsideratzen zen, deskantsatzeko erabiltzen zena. Egun gero eta denbora libre gehiago daukagu eta denbora libre horri balio erantsia ematen diogu: **ondo pasatzeko eta norbere garapena sustatzeko erabiltzen dugu.**

Gazte eta haurrentzako aisialdia ondo pasatzeko eta norberaren nortasuna eraikitzeke gunea da. Gaur egun nortasuna ez da lanaren edo ikasketen arabera bakarrik definitzen, astialdiak ere badu eragina nortasunean.

Norbanakoak bere astialdi eta aisialdian diren bezalakoak adierazten dira, ez dago tranparik. Denbora honetan bizi dituzten esperientziak beraientzat oso esanguratsuak dira. Beraiek dira protagonistak eta ardura desberdinak hartuko dituzte, hezkuntza formalean ohartzen hasi diren bezala ikusle pasibo rola alde batera utzi eta agente aktibo izan behar da.

Bestalde, azken hamarkadetan jendarteak jasan dituen eraldaketak astialdi eta aisialdiaren arloan ere eragin nabarmena izan dute.

- Familia egitura aldatu egin da (gurasoek lan egiten dute eta ez dute denborarik haurrekin egoteko, anai-arreba gutxi dituzte, famili ereduak aldatu dira,...)
- Auzo eta ingurune hurbileko bizimodua desagertzen doa.
- Kale eta plazak ez ditugu segurutzat ematen eta alertan eta beldurrez aritzen gara.
- Ikasketei garrantzi handia ematen zaio.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: astialdia aprobetxatu beharreko denbora dela kontsideratzen da eta asteko programazio zehatz bat ezartzen zaio haur edo gazte bakoitzari eskolaz kanpora dagoen ordu horiek aprobetxatzeko.

Hau guztia horrela ikusita, BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLAREN helburu nagusia balioetan oinarritutako suspertze kulturalaren eta aisialdiaren erabilera bultzatzea izan da.

Esku-hartzearen eta suspertze soziokulturalaren alorrean izaera desberdineko egitasmoak garatzen ditugu, beti ere, norberaren aisialdian garapen integrala jorratzeko aukera desberdinak eskainiz.

Aisiaren eta astiaren antzaldatzean sinisten dugu eta baita astialdi hezitzailean ere, gauzak horrela, balioetan oinarritutako egitasmoak burutzen ditugu eta helburu eraldatzailea dugu presente.

3. GAZTERREN EGITASMOAREN PROPOSAMENA

Jarraian aurkezten dugun proposamena Busturialdeko EISEak egindako eskaerari erantzuten dio, eta kulturarteko hezkuntza eta euskara uztartzen dituen egitasmoa da.

Urteak Dira Busturialdean, Gernikan, Gazterren proiektua martxan jarri genuela eta aurrekoetan bezala, 2020ko eskaerari erantzun nahi diogu.

Bertako errealitatek sortutako beharrari erantzun asmoz egindako proiektua dugu eta errealitatea gertuagotik ezagutu asmoz eta egitasmoa hobetzeko, proiektua gauzatuko duen hezitzailea Busturialdekoa izatea bermatu nahi da.

Gazterren saio bakoitza, 3 ataletan zatituta egongo da; sukaldaritza tailerra + eskulana + jolasa. Eta hezitzaile batek gidatuko du.

4. HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA	HELBURU ZEHATZAK
<p>Jatorri kultural anitzetako haur eta gazteak elkarrekin herrian euskaraz murgiltzea, kulturantzatasuna aberastasun gisa ulertuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Haur eta gazteen artean kulturarteko hezkuntzaren oinarri diren balioak sustatzea (elkarrekiko errespetua, bizikidetzeta, elkartasuna,...). - Gazteen arteko jarrera arrazista eta xenofoboak saihestea eta prebenitzea. - Haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta pizteko bitartekoak jartzea. - Musikarekin lotutako jardueren bidez jarrera inklusiboak sustatzea. - Musika modu gozagarrian bizitzea - Norberaren identitatea indartzea eta talde lana bultzatzea. - Garapen emozional eta afektiboa indartzea. - Entzumena lantzea
<p>Haurrei aisialdian euskararen erabilera sustatzeko jarduerak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararekiko motibazioa eta sentsibilizazioa indartzea jarduera atsegina eta gozagarrien bidez. - Euskara haurren eremu sozialean eta

eskaintzea	<p>afektiboan txertatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskara egunerokotasunerako tresna dela erakustea eta egunerokotasunean erabiltzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea. - Euskara maila akademikotik kanpo erabiltzeko espazioak eta aukerak sortzea. - Partaideen arteko eta lagunarteko harreman ohiturak euskaraz izatea sustatzea. - Euskararekiko jarrera positiboa garatzea. - Haurren euskara gaitasuna areagotzea. - Euskal kultura eta ohiturak ezagutzea. - Euskaraz ondo pasatzea.
Haurrengan jarrera osasuntsuak bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Elikaduraren garrantziaz ohartaraztea eta ohitura osasuntsuak barneratzea. - Ingurumenarekiko errespetua lantzea eta horrek gure bizitzan duen eraginaz ohartaraztea. - Harreman osasuntsuak eta euskaldunak bultzatzea. - Bizi-ohitura baikorrak indartzea eta ohitura ezkorrez ohartaraztea. - Kirola eta bizitza aktiboa egitearen garrantzia adieraztea.
Haurren garapen osoa sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Astialdian hezte garapen pertsonalerako bideak jarritz. - Jardueren aniztasuna eskaintzea haurren garapen psikomotorra, kognitiboa, kritikoa, sormenezkoa eta afektiboa bultzatzeko. - Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea.
Bazterketarik gabeko balioak eta jarrerak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren artean eta hezitzaileekin partaidetza eta laguntasuna sustatzea. - Haurren elkarrekintzetan, balio hezkidetzaileak eta bazterketarik gabekoak lantzea. - Elkarbizitzarako balio positiboak eta balio sozialak ahalbidetzea (garbitasuna, arauak, errespetua...).
Parte-hartze aktiboa eta inizatibaduna bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Norberaren nortasuna eta autonomia garatzea. - Ekintza sortzaileak bultzatzea. - Programazioan, haurren iritzi eta nahiak kontuan izateko baliabideak ezartzea. - Haur guztien parte-hartzea bermatzea, edozein zailtasunen aurrean.

5. METODOLOGIA

a. Metodologia Orokorra:

Metodologia **parte-hartzailea** erabiliko dugu. Horretarako dinamika aktiboak proposatzen ditugu, hurrek beraien astialdia egin eta bete dezaten, beraien protagonismoan sinestaraziz eta ekintzaren benetako egileak beraien direla barneratuz.

Proposatzen dugun metodologiak dinamika orokorrari lotura emango dio ekintzen arteko koherentzia bermatuz, beti ere, talde izpiritua eta horrek dakartzan balioak sustatzen saiatuz.

Bestalde, erabiliko dugun metodologiak honako ezaugarriak ditu: aktiboa, parte-hartzailea, erreza eta integrala. Honako hauek dira gure **metodologia** ildoaren ezaugarri orokorrak:

- Parte-hartzailea eta dinamikoa.
- Hezkidetzzailea, ez sexista eta ez baztertzzailea.
- Ulerkorra, arrazionala eta aktiboa.
- Une guztietan hezitzailea.
- Zehatza.
- Esanguratsua eta praktikoa.
- Komunikakorra.
- Aurrerakoia eta askatzailea.
- Ingurugiroaren ezagutza eta errespetuaren bultzatzailea.

Jarduerak ezberdinak izan arren euren artean oso lotuta daude. Egokiena dela deritzogu, izan ere, gure lana era globalizatu batean ulertzen dugu, non jarduerak bata bestearekin lotuak dauden eta helburu komunak betetzea bilatzen dugun. Gure jarduera guztiak honako **ezaugarriak** ditu:

- Izaera ludikoa.
- Elkarrizketan oinarritutako pertsonen arteko harremanen aldeko apustua.
- Lankidetzza, lankidegoa (talde izaera – giza izaera).
- Parte-hartze arduratsua.
- Bizipentasuna.
- Izaera erreflexiboa.
- Trataera globala eta integrala.
- Adierazpenaren garrantzia.

Aurrerago aipatu dugun bezala, ekintza ezberdinak burutzean, hezitzaileak izango dira bere taldea dinamizatzeko ardura izango dutenak. Lan egiteko era honekin, haur bakoitzaren jarraipen zehatza egin daiteke, sortzen diren beharrei erantzuna eman ahal izateko.

Azkenik hauek izango dira lanerako erabiliko ditugun irizpide metodologiko orokorrak:

- Haur eta gazteen berezko intereseko zentroetan oinarritua da jarduera, baina jardueraz jarduera ibiltzeak ez ezik, lasai egoteak, norberaren interesak eta lasaitasunak ere, garrantzia izango dute.
- Norberaren adierazpidea eta sormena bultzatu, askatasuneko giro batean, taldearen adierazpide integralari arreta emanez.
- Taldekideen kudeaketa talde modura egin.
- Estimuluen bidezko heziketarako giroa sortu, lasaia eta abegikorra.
- Hezkuntza hezkidetzaila, aukera berdintasunari dagokionez.
- Kulturarteko hezkuntza, jatorri kultur desberdinei dagokienez.
- Pedagogia barneratzailea, heziketa premia bereziei dagokienez
- Euskara normalizaziorako baliabide pedagogikoak, hizkuntza ohiturei dagokionez.
- Hezkuntza bateratuan oinarritutako bizipenak, berdintasunerako hezkuntzaren bidetik.
- Erabiltzaileen parte-hartze zuzena ludotekan; honela, ludotekaren eragile aktiboa izatea lortzen da.
- Lagungarri positiboa erabili, ahal den kasu guztietan.
- Gizarteratzeko arazo handiagoak izan ditzaketen erabiltzaileen hezkuntza positiboa bultzatu; izan ere, beharrian horiek desbideratu, indartu edo bultzatu daitezke jostailuen eta joko, egintza eta bizipeneko elementuen bidez.
- Ludotekak eskainitako jardueretan parte hartzeko motibazioa sustatu.

b. Euskara sustatzeko metodologia:

Jakin badakigu, epe laburreko egitasmo honetan, euskarazko helburuak ezin direla bere osotasunean bete, horregatik, helburu txikiak lortzeari ekingo zaio.

Hortaz, egitasmo honetan, haurrak euskal giroan murgilduta egotea, euskarazko materialarekin jolasean aritzea eta eskolako ordutegitik kanpo ere, euskara komunikatzeko eta gozatzeko bidea izatea, lorpen handia izango da.

Lorpen hauek eskuratze aldera, ondorengo metodologia jarraitzea proposatzen dugu:

Hasteko, aipatu beharra dago, lanean arituko den hezitzailea, euskalduna izateaz gain, euskararekin sentsibilizatuta dagoena izango dela. Urtxintxa Eskolako hezitzailea izango den heinean, ikastaroetan, euskara sustatzeko estrategiak landu ditu eta euskara oinarritzko balio bezala landu du.

Erabiliko ditugun baliabide material guztiak euskarazkoak izango da: diskoak, jokoak, ipuinak, mahai-jolasak... Honekin batera, euskal kultura transmititzea da helburua, ez delako ahaztu behar, kultura baten adierazpen aipagarrienetako bat (eta ez bakarra) hizkuntza dela. Euskararekin jolastu, abestu, trufatu, haserretu, maitatu, ordenagailuetan murgildu eta batez ere goza dezakegula erakutsiko zaie gazteei.

Euskaraz zailtasunak dituzten haurrak, ugaritasunez erakartzen eta kutsatzen dira euskarara, errepikapenak erabiliz, keinuekin azalpenak emanez, euskaraz

hitz egitera eta gozatzera gonbidatuz... Euskaraz hitz egiten dutenean ahalegin hori baloratu egiten da, akatsak egiten dituztenean, zuzendu beharrean lagundu egiten zaie, lotsatu ez daitezzen eta konplexurik har ez dezaten.

Euskararen erabilera zeharka landuko da, hau da, haurrek euskara era oharkabean erabiltzea izango da gakoa. Horretarako, hezitzaileek euskal jolasak, euskal kantutak, euskarazko esamoldeak... erabiliko dituzte.

Egitasmo honetarako baliabide politak izango direla uste dugu. Ahozkotasuna lantzeko, esamolde jatorrak aukeratu eta ikasturtean zehar hauei erabilera ematea proposatzen da. Honen helburua, haurrek esamolde hauek ikasi eta erabiltzeko ohitura hartzea da, beti ere modu natural eta oharkabe batean. Hizkera informala garatzea oso garrantzitsu ikusten dugu, euskara eskolatik kanpo atera eta lagunarteko erabilera emateko.

Euskara normalizatzeari buruzko ikuspegia BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLAN:

Egun, Euskal Herrian bi hizkuntza ofizialekin bizi garela esan arren, diglosi egoeran bizi gara, hau da, hizkuntza bietako bat, euskara, hizkuntza gutxitua da. Ez da berdin erabiltzen, herritarren gehiengoak ez daki hitz egiten, ez ditu hainbeste esparru bereganatzen eta ez ditu beste hizkuntzek dituzten eskubide berak.

Gure herrian betidanik bizi izan den komunikazio bidea izanik, eta, era berean, gure kulturaren eta identitatearen zati garrantzitsuenetakoa izanik, euskara normalizatzeko bidean lan egitea da gure helburua. Normalizazio bide horretan, euskararen eremuak zabaldu nahi ditugu, edozertarako balio duela erakutsi, bizitza daukan hizkuntza dela aldarrikatu eta bere ezagutza eta erabilera gure herrietan areagotu.

Gure lan esparrua aisialdia da batez ere, hortaz, Euskal Herriko haur eta gazteei euskarak eskaintzen duen mundua zabala dela adierazi nahi diegu, egunerokotasunean euskaraz egitea posible dela erakutsi. Hizkuntza hau maila akademikoarekin eta tradizioarekin bakarrik lotzearen ideia baztertu nahi da eta euskaraz ligatu, dantzatu, haserretu, oihukatu, sarean murgildu, trufatu, emozionatu, maitatu, kirolean aritu, pentsatu, amestu eta batez ere gozatu daitekeela ikustarazi.

Nabarmendu nahi da zeharka lantzen dugun gaia dela, jarduera, jarrera, esapide eta keinu bakoitzean oharkabean transmititzen da. Helburua da haur eta gazteek ohituragatik erabiltzea, inongo lotsarik eta presiorik gabe, lasai eta eroso.

Ez gara euskara erabiltzera behartzearen aldekoak, euskarara erakartzearen aldekoak baizik, haurrak zein gazteak kutsatuz, euskaraz gozatzera animatuz.

Euskara sustatzeko BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLAK erabiltzen eta defendatzen duen metodologia:

Oso garrantzitsua da ingurua euskalduna izatea. Ingurua diogunean, dekorazioaz, musikaz, giroaz...ari gara. Hortaz, espazioa euskarazko kartekez edo esaldiez apaintzea, uneoro estilo ezberdinetako euskal musika jartzea, euskarazko esamoldeak erabiltzea...da guk erabili ohi dugun metodologia.

Horrekin guztiarekin lotuta materiala doa, eta, nola ez, erabiliko den material guztia euskarazkoa izango da. Euskarazko musika duten diskoak, euskarazko liburuak, euskarazko jokoak, mahai-jolasak...

Hezitzaileei dagokienez, euskaldunak izateaz gain, euskararekin sentsibilizatuta daudenak izango dira, euskara sustatzeko trebakuntza jasoko dutenak. Hezitzaileek argi izan behar dute beraiek haur eta gaztetxoek eredu diren heinean, uneoro beraien artean, euskaraz egin behar dutela.

Jarraitzen den metodologia haurrak euskaraz egitera animatzearena da, eta ez euskaraz egitera behartzearena. Haurrak euskarara hurbiltzea da helburua, euskaraz eroso sentiaraztea eta horretarako erraztasun guztiak eskaintzea.

Euskaraz zailtasunak dituzten haurrak ugaritasunez kutsatzen dira, ugaritasunez erakartzen dira euskarara, errepikapenak erabiliz, keinuekin azalpenak emanez, euskaraz hitz egitera eta gozatzerara gonbidatuz...

Zailtasunak dituzten hurrek euskaraz egiten dutenean ahalegin hori baloratu egiten da; akatsak egiten dituztenean zuzendu beharrean lagundu egiten zaie, lotsatu ez daitezen eta konplexurik har ez dezaten.

Haur askorentzat euskal mundua arrotza denez, euskarak eskaintzen dituen aukera eta baliabideak erakusten zaizkie. Euskararekin jolastu, abestu, trufatu, haserretu, maitatu, ordenagailuetan murgildu eta batez ere goza dezakegula erakusteko ahalegina egiten da.

Euskararen erabilera zeharka lantzen da, hau da, hurrek euskara era oharkabean erabiltzea da gakoa. Horretarako, hezitzaileek euskal jolasak, euskal kantuak, euskarazko esamoldeak...erabiltzen dituzte. Lagunarteko hizkera garatzea ere oso garrantzitsu ikusten dugu, euskara eskolatik kanpo atera eta lagunarteko erabilera emateko. Horretarako, hainbat esapide jator erabiltzen eta erakusten dira, bai animatzeko, kirolerako, trufatzeko, jolaserako eta abar.

Heldu berriekin euskara sustatzeko eta lantzeko estrategiak:

Egun, migrazioen zergatia dela-eta, jatorri kultural ezberdinetako pertsonak biltzen gara auzo, herri eta hirietan. Auzokide berriek eta ohitura, kultura, sinismen eta hizkuntza anitzek aberastasuna dakarte.

Aniztasuna kudeatzeko, eta egoera berri horrek sortzen dituen zalantzak, nahasteak eta gatazkak bideratze aldera, kulturarteko hezkuntza proposatzen dugu Eragintzan eta hezkuntza prozesu horretan, euskara da ardatza eta bitartekoa.

Euskara, komunikaziorako tresna izateaz gain, euskal kulturaren oinarria da eta Euskal Herri inklusiboa sortzeko gako bezala ulertzen dugu. Guztiontzako esanguratsua izan behar da, auzokide guztiok gurea sentitu behar dugu, eta ez dugu ahaztu behar, denok ekarpen garrantzitsua egiten dugula, identitatea mantenduz, bizimodu dinamikoa eraikiz eta parte-hartzea bultzatuz.

Kulturartekotasuna sustatzeko metodología:

Hezitzaile bezala, kontziente izan behar dugu heziketa ez dela jarduera puntualen multzoa (kulturen jaialdia, dantzak...), prozesu bat baizik, horregatik kulturartekotasuna zeharka lantzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Kulturartekotasuna zeharka lantzen ez bada, jarduerak, folklorismo hutsean geratzeko arriskua dago. Hau ekiditeko, proposatutako jardueran edo proiektuan zehar eta naturaltasunez (helburuetan, inguruaren azterketan, ekintzetan, menua proposatzerakoan, taldeak egiterakoan, ebaluazioan...) kulturarteko ikuspegia kontuan hartuko dugu.

Horretarako, alde batetik, oso garrantzitsua da haurren errealitatea ezagutzea. Nahiz eta haurra herrialde zehatz batean jaio, ez du esan nahi kulturaren adierazle guztiak aurrera eramango dituenik.

Kulturarteko hezkuntzak, berdintasunean oinarritutako harremanak bultzatzen ditu, gehiegizko babesak alde batera utziz. Kulturartekotasunak, kulturen gogoeta kritikoa proposatzen du.

Gure taldeetan antzematen den aniztasun egoera honetan, kultura guztiek ekarpen aktiboak egiten dituzte. Kulturen arteko harremana gertatzen denez, kultura etengabe eraldatuz, ez dago ghettoak sortzeko arriskurik.

Kulturarteko hezkuntza aisialdian lantzeko, hamaika baliabide eta estrategia daude. Esate baterako, munduko jolasak eta jolas kooperatiboak aukera egokiak dira kultura ezberdinetara hurbiltzeko eta aniztasuna modu positiboan onartzeko. Kulturartekotasun ikuspegi honek bere baitan hartzen du gure euskal kultura.

6. PROGRAMAZIO PROPOSAMENA

Proposamen honetan egitasmoaren nondik norako batzuk besterik ez dira aipatzen, proiektuaren dinamizatzailleak Urtxintxako langilearekin batera, programazioa guztiz zehaztuko duelarik, behin egitasmoa onartua dagoenean.

Aurtengo eskaera zehatzari erantzunez, MUNDUKO SUKALDARITZAren interesgunearekin jarraituko dugu, 13 saioetan zehar ardatz izango dena. Saio bakoitzean ekarritako proposamenen bidez, saio bakoitzean landuko diren gaiak azalduko dira. Programazioan hauek izango dira, oro har, aurrera eramango diren jardueretako batzuk:

ZEHARKATUKO DIREN BALIOAK	LANDUKO DIREN GAIK	ERABILIKO DIREN TRESNAK
Euskara Kulturartekotasuna Parekidetasuna Aniztasun funtzionala Parte-hartzea Elkarlana	Sukaldaritza Ingurumena Harreman eta jarrera osasuntsuak Gorputz adierazpena Sormena Irudimena Higienea	Errezetak Jolasak Ipuinak Eskulanak Tailerrak

7. GIZA BALIABIDEAK

Gazterren proiektuaren arduraduna Amagoia Osinalde izango da, egitasmoaren koordinatzaile eta aholkularia.

Gazterren egitasmoko esku-hartze zuzenean jarduteko, aurreko urteetan proiektu honetan lanean aritu diren hezitzaileak lehenetsiko dira, euskaldunak, gernikarrak eta aisialdiko begirale titulua edo hezkuntzako titulazioak dituztenak, hain zuzen ere.

Urtxintxako koordinatzailearen funtzioa egitasmoaren ardura orokorra izatea izango da eta aldi berean, EISEarekin eta dinamizatzaillearekin etengabeko harremana izatea. Bulegoko kudeaketa lanak bideratuko ditu, ebaluazioaren ardura izango du eta dinamizatzaileri jarduera guztien prestaketan lagunduko dio.

Bestalde, dinamizatzailerak, programazioaren ardura izango du, gazteekin esku-hartze zuzena egingo du, etengabeko ebaluazioa egingo da taldearekin, eta abar. Azken finean, bera izango da egitasmoaren eta partaideen erreferentea. Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatzeko eta programatzeko orduan eta bai parte-hartzaileekiko harremanetan.

8. BALIABIDE MATERIALAK

Urtxintxa Eskolaren bulegoa erabiliko da bulego lanak egiteko, kopiak ateratzeko eta abar. Ekintzetarako beharko den materialaz Urtxintxa Eskola arduratuko da.

9. DENBORALIZAZIOA

Aurkezten dugun proposamenak 13 saio izango ditu; asteazkenero burutuko ditugu eta bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du.

2020ko egutegi proposamena:

IRAILA	16
	23
	30
URRIA	7
	14
	21
	28
AZAROA	4
	11
	18
	25
ABENDUA	2
	9

10. EBALUAZIOA

Ebaluazioa prozesu guztian zehar presente egongo den dinamika da. Ez da amaierako balorazioa eta memoria bakarrik egingo, egitasmoak dirauen bitartean, etengabeko ebaluazioa bideratuko da. Honela, aurretiaz zehaztutako estrategiek edo programazioek funtzionatzen ez badute, aldatzeko aukera izaten da; beste helburu batzuk markatzeko aukera ere izaten da eta prozesuaren nondik norakoak ikusita, erabaki ezberdinak har daitezke. Hobekuntzak egiteko eta esperientziak elkartrukatzeko tresna paregabea da, eta helburuak lortzeko bidean, asko laguntzen du balorazioa sarritan egiteak. Ebaluazioaren bidez, gure lanaren bidean sor daitezkeen ezjakintasun eta zalantzak murriztz ditzakegu; jarritako esfortzu guztia ondo bideratua dagoen kontrola dezakegu; garatzen ari garen jardueren baliagarritasuna egiazta dezakegu; eta, batez ere, etorkizunari begira zenbait neurri har ditzakegu, akatsak zuzenduz eta indar-guneak aprobetxatuz.

Bestetik, aipatu ebaluazioan partaide eta eragile guztiek hartuko dutela parte. Egitasmoan parte hartu duen orok izango du zerbait baloratzeko eta oso garrantzitsua da denen ikuspuntua biltzea.

Martxan jarriko dugun ebaluazioak izango dituen ezaugarriei dagokienez, hauek azpimarratu nahiko genituzke:

- **Etengabekoa:** Burutuko den jarduera osotasunean eta une ezberdinak kontuan izanik ebaluatu behar da. Horri esker, gure esku-hartzea egokituz joango gara, ebaluazioaren bidez, behar ezberdinak detektatuz goazen heinean.
- **Parte-hartzailea:** Ebaluazioa, maila handiagoan edo txikiagoan, jardueran parte hartzen duten pertsona guztiek egin behar dute. Horretarako, ebaluazio mekanismo ezberdinak jarriko ditugu martxan, ebaluazioa burutu behar duen agente motaren arabera.
- **Baliagarria:** Gure esku-hartzea hasierako helburuetara eta parte-hartzaileen beharretara egokitua egon dadin, ebaluazioak hobekuntzak sortzeko balio behar du.

Hori dela eta, egitasmo honetan guztian zehar bideratuko den ebaluazio sistema ondokoa izango da:

Urtxintxa Eskolako arduraduna ikasturtean zehar hiru aldiz bilduko da dinamizatzaile taldearekin ebaluazioa egiteko, hiruhilabeteko bakoitzaren amaieran. Dena den, etengabeko ebaluazioa jarraituko da egitasmo osoan

zehar, dinamizatzailleekin telefono eta posta elektroniko bidezko kontaktua sarritan mantenduko da, batez ere egitasmoa martxan jartzean.

Bestetik, Urtxintxa Eskolako arduraduna, dinamizatzaille taldea eta Udaleko ordezkariak urtean zehar pare bat aldiz gutxienez biltzea proposatzen da, egitasmoaren jarraipena eta balorazioa egiteko.

Urtxintxa Eskolako arduradunak irakasleekin eta dinamizatzailleekin egiten dituen bileren ondorioekin osaturiko txostena bidaliko dio Euskara Zerbitzuko arduradunari eta hiru hilez behin ebaluazio txosten bat bidaliko dio. Amaieran, egitasmo osoaren ikasturte amaierako oroitidazkia ere bidaliko dio.

11.AURREKONTUA

KONTZEPTUA: GAZTERREN PROIEKTUA	KOPURUA
<ul style="list-style-type: none">• Irailaren 16tik abenduaren 9ra• Hezitzaile bat: astean ordu eta erdiko dinamizazioa + ordu erdiko prestakuntza• Materiala• Kudeaketa.	
GUZTIRA	1.400,00€



**EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO EDO
HARREMANETARAKO**

AMAGOIA OSINALDE

Tel. 94 432 0445 / 615 701 321

urtxintxa@urtxintxaeskola.eus

www.urtxintxaeskola.eus